ASTIBERRI
EUSKARAZ

14 URTETIK AURRERA



HEARTSTOPPER
5. AURRERA, ELKARREKIN

Gidoia eta irudiak: **Alice Oseman**
Itzulpena: **Naroa Zubillaga**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2026
Kolorea. Paper-azala
336 orrialde. 15,3 x 23,4 cm. 17 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-10332-97-3

EKAINAREN 18TIK AURRERA SALGAI

Hemen dugu *Heartstopper* sailaren azken-aurreko liburua, “gazteentzako fikzioaren egoera aldatu duen lana”, *Heat* aldizkariaren arabera

Beste erronka bat

Nick eta Charlie oso maiteminduta daude, eta, azkenean ere, ahoskatu dituzte elkarrekiko sentitzen duten guztia adierazten duten bi hitz horiek. Horrela, harremana sendotzen ari denez eta Charliek oreka berreskuratu duenez, urrunago joan nahi dute. Charlie, hain zuzen ere, ekin eta ekin ari da ama konbentzitu nahian Nicken etxean gaua pasatzen utz diezaion... Bien bitartean, garai berri batekin hasteko ari da prestatzen Nick, hurrengo ikasturterako unibertsitate-aukerak aztertzen. Eta beste hiri batera joan beharko balu?

Alice Osemanek lehenbiziko erromantzearen zirrikituak aztertzen jarraitzen du Nick eta Charlieren arteko harremanaren eskutik. Nola kudeatu aldi berean nerabezaroko erronkak (etorkizuneko lan-ibilbidea, familia-harremanak, buruko osasuna) eta bikotekidearekin daukazun konpromisoa? Serie ingelesaren azken-aurreko liburuak ustez erraz-erraza den galdera bat dakarkigu: bi mutilek maitasuna aitortu diote batak besteari, bai, eta orain, zer? Sarean egin zuen lehen argitalpenaz geroztik hamar urte igaro direnean eta mundu osoan eta 40 hizkuntzatan 10 milioi liburu saldu dituenean, proiektu honi amaiera emateko puntuan da Oseman egilea. Uztailaren hasieran argitaratuko da seigarren eta azken liburua, eta, ondoren, nahiz eta oraindik ez daukagun data zehatzik, *Heartstopper Forever* estreinatuko da, Netflix plataforman hasitako denboraldiei amaiera emango dien film luzea.

"*Heartstopper*-ek gazteentzako fikzioaren egoera aldatu du".

Heat

ALICE OSEMAN (Kent, Ingalaterra, 1994) komikigile saritua da, idazlea, ilustratzailea eta gidoilaria. Bera da *Heartstopper* komiki-sailaren sortzailea. Sei alek osatzen dute saila, bertan LGBTQI+ giroko erromantzeak lantzen dira irakurle nerabeentzat, eta dagoeneko hamar milioi kopia baino gehiago saldu dira munduan eta 39 hizkuntzatara itzuli dituzte. Oseman bera aritu da Netflixentzat egindako ikus-entzunezko egokitzapenaren gidoilari eta ekoizle. Osemanen liburuek hainbat sari irabazi dituzte edo hainbat saritarako aukeratu eta izendatu dituzte, besteak beste, YA Book Prize, Inky Awards, Carnegie Medal eta Goodreads Choice Awards sarietarako. 2024 eta 2026 bitartean, Astiberrik *Heartstopper*-en sei liburuak argitaratu ditu euskaraz.

Heartstopper
1. Bi mutilen enkontrua
288 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-08-9

Heartstopper
2. Zu etxerako!
320 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-09-6



Heartstopper
3. Urrats handi bat
384 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-63-8

Heartstopper
4. Esan gabe doa
384 orrialde. 17 euro
ISBN: 978-84-10332-65-2

Martxoak 6, igandea

Dagoeneko udaberria. Gezurra dirudi!

Charlie askoz hobeto dabil orain.
Truhamera itzuli da, baita errugbira ere,
eta geroz eta gutxiago dira
egun txarrak.

Azkenean ere, kontatu nion aitari
gerea... Egia esan, denek dakite
elkarrekin gabiltzala.

Urrats asko egin ditugu. ♡

Eta orain etorkizunerako ditudan asmoetan pentsatzen hasi behar dut. Udazkenean unibertsitatera joango naiz, baina arrastorik ere EZ DUT zer egingo dudan nire bizitzarekin.

Baliteke Charlierengandik urruntzea, eta ez dakit zer sentitzen dudan hori dela-eta...